

## SASI-EUSKALDUNEN JAKITURIA

Denbora gitxi dala taldekide batzukaz asi nintzen gaur egungo euskeraren egoera zela eta, alkarizketatxo baten jarduten, eta asko eztabaidatu ondoren, euskeraren alorreko gauzetaz, gauzak bat ere argi ez eukezela konturatu nitzan.

Jende askok, euskeraz itz egiterakoan, edo baita idazterakoan ere, erdal jokerak erabiltzen ditu. Zeozer esaten ba'dautsazue, gramatikalki ondo da goela diñotsue eta or bukatzen da eztabaida.

Euskalgetitik urteten daben jendeak euskeraz itz egiten dabilzazelekoan erderaz ari dira itz egiten euskal itz-ekiñ.

Bereala nabaritzen da betiko euskaldun zar baten gatza eta bizitasuna, bai itzetan eta baita esaereteen ere, euskalgetian ikasitako euskaldun barri baten ondoan.

Gaur egun, bai irratian, bai telebiziñoan eta bai izparringian, itzalezko zartadak ematen dabezan esaldiak entzun geinkez, eta alfabetutako pertsona ba'zara, tira, igarri egiten dozu zer esan gura dauan testu-ingurutik, baiña esaterako gure nagusiak, bat ere alfabetatu gabeko nagusiak edo gitxi alfabetatutako nagusiak eziñezkoa dabe mezu ori patxadaz ulertzea.

Adibide argi bat ipinteko; gure amomak bere bizi guztian euskeraz itz egin dau, erderaz oso gutxi daki, eta ez dau ulertzen Euskal Telebista, ezta ere euskera batuan itz-egindako alkarrizketa bat.

Nire ustez alde batetik iztegiari bota aal deusagu erru apur bat, gure inguruko itzak eta euskera batuaren barruan dagozan itzak ezberdintasun batzuk daukazelako, eta ez ezberdintasun aundirik, apur bat baizik!

Eta beste alde batetik joskera-arazoa dogu. Euskaldun askok garrantzirik emon ez arren oso garrantzitsua da joskera zuzen, jator eta argi bategaz, euskeraz idaztea eta itz egitea.

Ori lortzen ez dan artean gure izkuntz zaarra itzera kondenaturik dago.

Sarri berba arrazoizkoen bidez aalegindu naiz jende batzuri ulerterazten, baiña ezinezkoa iruditu yat euren erantzuna jaso ondoren.

LEGARRETA'TAR ASIER



# BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ



**Eusko Jaurlaritzaren**  
**Laguntzaz.**  
Kultura Saila